

Erabakia



**KOLDO ALDALUR
HIRIGOIEN**
KAZETARIA

Hipotekak gora, sindikatuak muturka, bi nerabe bortxatu dituzte, hamalau migratzaile itota, bi palestinar tiroka hilik Zisjordanian, Etiopiako egoera lazarria... eta, besteak beste, nola ez, Ukrainan antolatu duten gerra amaigabea. Aste hau ere gogorra izan da albistegietan.

Nahi ordu ez, baina iritsi da larunbat arratsaldea: sofán luze-luze jarri eta pentsatu beharrik gabe egoteko tartea. Ez dakit ziur zer den ataraxia, baina holako zerbait behar du.

Iratzargailuaren kargu hartzearekin esnatzeko garaia bukatzen ari zaidan honetan, horixe da aldarrikatu nahi dudana: pentsatu beharrik gabe bizitzea astean ordu batzuk bederen! Arnasa hartzea eskubidea da.

Eta, hain zuzen ere, gure ordeztatzeko sortutako inkomunikazio leihoan, Sydney Pollack-ek 2005ean zuzendu zuen *The Interpreter* (Itzultzailea) pelikula, pare-parean.

Bertan, Nazio Batuen Erakundearen itzultzaile lanetan aritzen den Silvia Broome (Nicole Kidman) eta Tobin Keller (Sean Penn) detektibea elkarri hainbat kontu argitu ezinean dabilta.

Halako batean, itzultzaileak halako

Ez al du merezi
justiziaren ibaian
itotzea berak sortutako
gerrari balizko bake
akordiorako ahalegin
oro boikotatzen
aritzen denak?

zerbait bota dio adi-adi begira duen detektibeari: “Bada Afrikan tribu bat, non justizia era nahiko berezian ezartzen duten. Norbaitek norbait hiltzen badu, eta herri-epaiketan ustezko hiltzailea errudun jotzen badute, hildakoaren senitartekoei aukera dute hiltzailearen bizitzaren gainean erabakitzeke.”

Orduan, herritarrek erruduna ibaira botatzen dute eskuak eta hankak lotuta dituela, eta hildakoaren senitartekoei uretatik bizirik atera edo bertan itotzen utzi erabakitzeke eskubidea dute. Eta badakizu? Tribu horretan uste dute hiltzailea uretatik bizirik ateratzea erabakitzen dutenek aurrerantzean bizitza

zoriontsuagoa izango dutela gorroto hutsa zena baretu egin zaielako eta berriro bakea iritsi delako familiako kideen arimetara”.

Akabo pentsatu beharrik gabeko nire larunbat arratsaldea! Berriro galderak borborka buruan, erasoka. Bizirik mantendu ala itotzen utzi erabakitzeke unean, maila berean jarri beharrekoak al dira, esate baterako, gerraren beroan, bizitzari eusteagatik, tiro egiten duena, eta gerra hori diseinatu duena bere interes ekonomikoak, geostrategikoak edo dena delakoak aurrera eraman ahal izateko?

Larri dabilenak tiro egiten duenean, ez du hausnarketarako denboraren laguntzarik. Aitzitik, gerra noiz eta non izango den deliberatu duenak denbora luzea izan du hildakoak nortzuk izango diren erabakitzeke.

Eta, ez al du merezi justiziaren ibaian itotzea berak sortutako gerrari balizko bake akordiorako ahalegin oro boikotatzen aritzen denak?

Suposatzen dut arrazoi etikoek, moralak eta gainontzekoek bultzaturik, korrika joan beharko nukeela itotzen hasitakoa uretatik ateratzera, baina gaur ez pentsatzea erabaki dut. ●



Hezkuntzan LGTBIQfobiarik ez

